

Zapaltzen gaituenaren ispilu

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

Denok ezagutzen dugu etxean ispilurik ez duen norbait. Edo, behintzat, ispilura begi gardenekin begiratzen ez duela dirudien norbait. Haren sukaldeko zikinkeria ezkutatu nahian, besteren ezkaratzak erraztu beharraz aritzen dena. Jendearekin dituen liskarretan duen ardura estaltzeko, bera biktima den pelikulak asmatu, sinetsi eta sinetsarazten dituen.

Eta norbait horrek nekatu egiten gaitu, mindu, huts egiten digu. Baina

nekatzeraino huts egin digunean, indartu ere egiten gaitu. Ikasi dugulako haren hitzei eman beharreko garrantzia neurtzen. Hark hartutako konpromisoen zain ez egoten. Ohi baino jatorrago datorkigunean, hotz antzean erantzuten. Eta errieta tonua entzuten diogunean, etxean falta duen ispilu horren funtzioa betetzen.

Noski, ipuinen korapiloak askatzeko mila modu ezagutzen ditu norbait horrek. Eta buelta ematen dio edozein istoriori: bera jartzen da biktimaren le-

kuan, eta guri, huts egin diogula leporatzen digu.

Ohartu gara, ordea, berak baino lehen, narratzaile papera guk hartzeak duen garrantziaz. Konplizeak topatzek ematen digun indarraz. Norbait horrek, gu bakartzeko ahaleginean, antzera tratatzen gaituenak elkartzea lortzen duelako.

Mundua bere aurka dagoela esanez bere buruaren alde egiten duenak, finean, bere buruaren aurka diharduelako. •

Sotanak

Joxean Agirre

Pio Barojaren utopia hura, apaizik, eulirik eta karabinerorik gabeko Bidasoko errepublika, ari da gauzatzen. Karabineroek hor jarraitzen dute, baina, adituek diotenez, euliak eta xomorroak oro har gutxitzen ari dira eta apaizak zeresanik ez.

John Banvillek, apaizez eta hauen barne-tegiez hainbeste idatzi duen idazleak, Dublinetik apaizak desagertzeko zorian daudela komentatu zuen oraindik orain Donostian. Norbait traje beltzarekin eta galtzerdi zuriekin ikusten duenean bakarrik pentsatzen omen du «to! hau apaiza duk». Idazleak dio Elizaren kontrola 50eko hamarkadan Europa Ekial-

dean alderdi komunistek zutenaren antzekoa zela, eta arrazoi du.

Trikitixaren historiak (orain bi urte Kepa Junkerarentzat liburuxka bat idatzi nuen) erakusten du kontrol horren berri: Mauriziaren senarrari, Karakoli, apaizek aitortzako barkamena ukatzen zioten. Auntxaren amak gutun anonimoak jasotzen zituen semea bakarrik ez, bera ere infernura joango zela iragarritz. Azkoitiko alkate bat elizatik bota zuten plazan baltseoa baimentzeagatik.

Derioko seminarioan bakarrik 649 apaizgai zeuden 1960an. Globo hori kolpetik lehertu zen. Jose Diaz Herrera ize-neko kazetari hiperespainiar batek Ar-

dantzaren gobernuko jatorri erlijio-soa aztertu zuen behinola. Lehendakaria bera Deriotik igarotakoa zen, Chelo Zubizarreta, Jabier Caño, Juan Txurruka Arellano, Felix Ormazabal eta Joseba Arregi apaiz edo jesuita ikasketak eginak ziren. Unibertsitate ezberdinetako buruak (Jabier Berriatua, Goyo Monreal, Aranzadi, Egaña edo Scheifler) sotana motaren batekin ibilitakoak ziren.

Alberto Barandiaran, Iñigo Astiz eta Miren Rubiok sexu jazarpenen lekukotasunak bildu dituzte “Ez duzu abusatu-ko” liburuan. Irakurri beharreko liburu-zen zerrendan apuntatu beharreko bat gehiago. •